

## DOKUMENTUEN EDUKIAREN ETA OIARTZUNGO HRI ANTOLAKETARAKO PLAN OROKORRA IDAZTEKO PROZEDURAREN AURKIBIDE OROKORRA

---

1. DOKUMENTUA      INFORMAZIO ETA JUSTIFIKAZIO MEMORIA
2. DOKUMENTUA      INGURUMEN JASANGARRITASUNARI BURUZKO TXOSTENA
3. DOKUMENTUA      EGITURAZKO ANTOLAMENDUAREN ETA ANTOLAMENDU  
XEHATUAREN PLANOAK
4. DOKUMENTUA      HIRIGINTZAKO ARAUDIA
5. DOKUMENTUA      HIRIGINTZAKO JARDUKETAREN BIDERAGARRITASUN  
EKONOMIKO-FINANTZARIOAREN AZTERKETA
- 6. DOKUMENTUA      IRAUNKORTASUN EKONOMIKOARI BURUZKO MEMORIA**
7. DOKUMENTUA      HIRIGINTZA-ERAIKIGARRITASUNAREN ESTANDAR MAXIMOAK  
ETA MINIMOAK BETETZEN DIRELA EGIAZTATZEN DUEN AGIRIA
8. DOKUMENTUA      LABURPEN BETEARAZLEA

## 6 ZK. DOKUMENTUA.- IRAUNKORTASUN EKONOMIKOAREN MEMORIA

### AURKIBIDEA

- 6.1. SARRERA
- 6.2. UDAL AURREKONTUEN BIDERAGARRITASUNA: KONTZEPTUAK
- 6.3. UDAL INBERTSIOEN KAPITULUA (2002-2012)
- 6.4. PLAN OROKORRAREN ETA BERE PROPOSAMENEN IRAUNKORTASUN EKONOMIKOAREN AZTERKETA
- 6.5. AURREIKUSITAKO SISTEMA OROKORREN JARDUKETA PUBLIKO NAGUSIAK
- 6.6. UDAL ADMINISTRAZIOAREN GAITASUN EKONOMIKOAREN JUSTIFIKAZIOA. BIDERAGARRITASUN EKONOMIKOAREN AZTERKETA PROSPEKTIBOA

## 6.1.- SARRERA.

2008ko ekainaren 20ko Lurzoruaren Legearen Testu Bateginak plangintza orokorraren berezko antolamendu- eta gauzatze-aurreikuspenak osatu behar ditu, bere proposamenen iraunkortasun ekonomikoaren azterketarekin. Azterketa hori, bereziki, honako haztatze honi lotuko zaio: "beharrezko azpiegiturak ezarri eta mantentzeak eragindako Herri Ogasunetan jardunaren inpaktua, edo emaitzazko zerbitzuak abian jartzea eta eskaintzea, bai eta produkzio-erabileretara zuzendutako lurzorua nahikoa eta egokia izatea ere".

Bere helburua kontuan hartuta, ebaluazio ekonomiko horri ekiteko, Plan Orokor honetan lantzen den lurralde eta hirigintzako garapen iraunkorreko ereduaren esparruan ebaluazio hori behar bezalako testuinguruan kokatu behar da. Eta horregatik, hain zuzen ere, eredu horren gizarte- eta ingurumen-ikuspegiaren osagarri gisa ekin behar zaio. Baldintza horietan kontuan hartuta, ebaluazio hori ikusi eta kontuan hartu behar da Plana beraren eta bere "1.2 Ingurumen Iraunkortasunari buruzko Txostena" dokumentuan egiten diren proposamenen azterketaren osagarri gisa.

## 6.2.- UDALAREN AURREKONTU BIDERAGARRITASUNA – KONTZEPTUAK.

Udal altxortegiaren inbertsio ereduaren jarraipena ematea bermatzea da helburua, 2014-2024 aldirako hirigintza helburua betetzeko, horixe baita, hain zuzen, Plan Orokorren gutxi gorabeherako epea, orain hasiko dena. Horrerarako, 2007ko Arau Subsidiarioak gauzatzeko aldiko parte-hartze mailaren analisi konparatiboa hartuko da abiapuntu gisa; horrela, oinarritzko erreferentzia maila bat ezarriko da, prospektiba moduan udal aurrekontuaren bideragarritasunaren oinarriak finkatzeko.

### 6.2.1. DIRU-SARRERAK.

Tokiko Administrazioaren diru-sarreraren atala ondorengo kapituluez osatua dago:

#### 6.2.1.1. DIRULARRERA ARRUNTAK.

I KAPITULUA	Zuzeneko Zergak.
II KAPITULUA	Zeharkako Zergak.
III KAPITULUA	Petxak.
IV KAPITULUA	Transferentzia arruntak.
V KAPITULUA	Ondare sarrerak

#### 6.2.1.2. KAPITAL SARRERAK.

VI KAPITULUA	Inbertsioak besterentzea
VII KAPITULUA	Kapital transferentziak
VIII KAPITULUA	Aktibo finantzarioak
IX KAPITULUA	Finantza pasiboak

## 6.2.2. GASTUAK.

Tokiko Administrazioaren gastuen atala ondorengo kapituluez osatua dago:

### 6.2.2.1. GASTU ARRUNTAK.

I KAPITULUA	Langileen ordainsariak
II KAPITULUA	Ondasunen eta Zerbitzuen erosketa
III KAPITULUA	Interesak
IV KAPITULUA	Transferentzia arruntak.
V KAPITULUA	Atxikitako kredituak.

### 6.2.2.2. KAPITAL GASTUAK

VI KAPITULUA	Atxikitako Inbertsio-Kredituak
VII KAPITULUA	Kapital transferentziak.
VIII KAPITULUA	Aktibo finantzarioak
IX KAPITULUA	Finantza pasiboak.

SARRERA ARRUNTA eta GASTU ARRUNTAREN arteko diferentzia, INBERTSIOen kapitulari esleitzen zaion aurrekontu tartea suposatzen du.

Hori zuzendua izan da gorantz, sarreretako VII kapituluaren arabera, hau da, subentzioak edo sarreretako IX kapituluaren baitan, hau da, maileguak, kasu bakoitzean dagokionaren arabera.

## 6.3. UDAL INBERTSIOEN KAPITULUA (2002-2012).

Oiartzungo Udalak, aurreko 10 urteko epealdian (95/2007/2009 AA.SS), HAPO honentzat aurreikusitako epealdi antzekoan, ondorengo hamar urteroko ekitaldia antolatu du Inbertsioen kapitulan.

EKITALDIA	GAUZATUA (€)
2002	8.494.677,04
2003	19.380.676,80
2004	19.058.870,80
2005	15.148.710,32
2006	4.742.961,39
2007	7.735.321,09
2008	3.198.222,86
2009	4.735.624,20
2010	1.812.216,79
2011	2.181.688,75
2012	1.747.928,02
GUZTIRA	88.236.898,06

Urteko batezbesteko inbertsioa: 8.021.536,18 €/urteko.

Kontuan eduki behar da hemen adierazitako kopuruak higiezin merkatuaren une gorenarekin (2002-2007) bat egiten dutela, baina ez duela islatzen udalak inbertsioak egiteko duen gaitasunaren errealitatea.

Plan Orokorrak planteatzen dituen jarduketak, iraunkortasunaren ikuspuntutik planteatzen ditu, hitz horren edukiaren adierazpen gorenean, eta horien artean sartzen da, ezin bestela izan, jarduketan aspektu ekonomikoa, planteamendu errealista batetik. Zentzu horretan erreferentziako inbertsioen ekitaldia, azken bost urteetako izan behar du.

EKITALDIA	GAUZATUA (€)
2008	3.198.222,86
2009	4.735.624,20
2010	1.812.216,79
2011	2.181.688,75
2012	1.747.928,02
GUZTIRA	13.675.680,62

Urteko Batezbesteko Inbertsioa: 2.735.136,12 €/urteko.

Horrela bada, 2008-2012 (5 urte) epealdirako inbertsioetako kapitulu orokorra 13.675.680,62 €koa izan da, horrek urteko 2.735.136,12 euroko batezbesteko inbertsioa suposatzen du. Hau erreferentzi zehatza izango da Plan honen indarraldirako udalak inbertsioetarako duen gaitasuna kalkulatzeko.

Baina jadanik luze eta itogarria gertatzen ari den krisi ekonomikoaren hurbiltze errealistagoa, eta kontserbatzaileago batek doiketa handiago bat merezi du. Horretarako Plan honentzako azken erreferentziarako, azken hirurtekoaren ekitaldia hatuko da kontuan.

EKITALDIA	GAUZATUA €
2010	1.812.216,79
2011	2.181.688,75
2012	1.747.928,02
GUZTIRA	5.741.833,56

Planaren Erreferentziaren Urteko Batezbesteko Inbertsioa (B.I.)

$$B. I. = \frac{5.741.833,56 \text{ €}}{3 \text{ urte}} = 1.913.944,52 \text{ €/urteko}$$

#### **6.4. PLAN OROKORRAREN ETA BERE PROPOSAMENEN IRAUNKORTASUN EKONOMIKOAREN AZTERKETA.**

Aipatutakoarekin bat etorruta, Plan Orokorren eta bere proposamenen ebaluazio ekonomikoa Plan horretan sustatzen den lurralde eta hirigintzako garapen iraunkorreko

ereduaren esparruaren testuinguruan jartzeko helburua izan behar du, eta horrekin bat etorrira, eredu horren gizarte eta ingurumeneko arloen osagarri izan behar du.

Horrexegatik hain zuzen ere, ebaluazio hori ikusi eta kontuan hartu behar da Plana beraren eta bere "1.2 Ingurumen Iraunkortasunari buruzko Txostena" dokumentuan egiten diren proposamenen azterketaren osagarri gisa.

Baldintza horietan, azpimarratu behar da orain planteatutako helburua ez dela iraunkortasun ekonomikoaren inguruan abstraktuan teorizatu edo gogoeta egitea, ikuspegi horretatik Plan Orokorra definitu eta sustatzen duen lurralde eta hirigintzako eredu zehatz eta espezifiko ebaluatzea baizik.

Testuinguru horretan eta epigrafe horretako aurreko idatz-zatietan aipatutako gaiak kontuan hartuta, Plan Orokor honen eta bere proposamenen iraunkortasun ekonomikoaren justifikazioa, beste hainbaten artean, ondoren aipatuko ditugun kasu guztiak batera eta osagarri gisa hartzearekin lotuta ulertu behar da:

- Orokorrean, Plan Orokor honen eta bere proposamenen iraunkortasun ekonomiko eta, azken batean, horrek eskatzen dituen egokitasuna eta beharra, proposamen horien premia justifikatzeari berari zuzenean lotuta ulertu behar da.
- Eta horrexegatik hain zuzen ere, proposamen horien helburua premia haiek eragindako arlotan planteatutako eskaerei behar bezala justifikatuta erantzutea den neurrian, orokorrean esan daiteke Plan Orokor hau eta bertako proposamenak ekonomikoki iraunkorrak direla, beharrezkoak diren neurrian.
- Aurrekoarekin koherentziaz, iraunkortasun ekonomiko hori bizitegi garapenen eta jarduera ekonomikoaren arloetan planteatutako proposamenen justifikazioarekin berarekin lotu behar dira, horren inguruan planteatutako eskaerei erantzuteko beharrezkoak eta nahikoak diren neurrian.
- Orokorrean eta dagozkien salbuespenak kaltetu gabe ere, planteatutako garapen berri asko baldintzatzen dituzten bi egoerek, beste hainbaten artean, iraunkortasun ekonomikoan zuzenean eragiten dutela ulertu behar da hiri honetan eta kasu honetan.

Aurrenekoa, orokorrean, hiri-eraberritze eta -berrikuntzako prozesuen garestitasun handiagoari lotua dago, eta ondorioz, garapen berrien kasuan baino kostu handiagoak eragiten dituzte, ondoren aipatuko den beste egoeraren inplikazio ekonomikoak kaltetu gabe.

lido horretatik, lurzoru berriak okupatzeari lehentasuna emanez mota horretako prozesuak sustatzeko Plan honen aldeko apustuaren, eta bertan planteatutako mota horretako jardunen garrantzi kuantitatibo eta kualitatiboaren ondorioz, Plana eta bere proposamenak gauzatzeko kostu ekonomikoak handituko dira.

- Dena den, lurzoru berriak okupatu baino lehen, gaur egungo hiri-ingurunearen erabilera eraginkorra ekarriko duten jarduerak sustatzea (Plan honetan proposatutako hiri-erreformen eta -berregituratzeen kasuan gertatzen den moduan) edozein hirigintza-garapen iraunkorraren premisa orokorretako bat den neurrian,

jarduera horien kostu ekonomiko handiagoa iraunkortasun-irizpide eta/edo -printzipio horren garestitzearen eta/edo garestitze handiagoaren isla besterik ez da.

## **6.5.SISTEMA OROKORREN INGURUKO JARDUERA NAGUSIAK, PLAN OROKORREAN AURREIKUSITAKOAK (2014-2024 ALDIA).**

Jurisprudentziak planeamendu orokor mailan ezarri bezala, aurreikusitako jardueren finantzazio ildo nagusiak aurreikusten ditu Jasangarritasun Memoria azterketa ekonomiko finantzarioak; kasu honetan, Oiartzungo Hiri Antolaketako Plan Orokorrean aurreikusitakoak.

Txosten honek planeko proposamen nagusien inguruko inbertsioen kostea aztertzen laguntzen du, bideragarri diren edo ez ikusteko. Administrazio Publikoaren mende egongo da inbertsioa, ez Udal Administrazioaren mende soilik; izan ere, lurraldeen arteko elkarreaginaren eta eskumen banaketarako elementu juridiko-politikoaren ondorioz, interesak eta eskumen publikoak koordinatzeko elementu da memoria honen azterketa ekonomikofinantzarioa Oiartzunentzat.

Duten dimentsio fisikoagatik eta lurralde mailan EAE osoari eragiteagatik, Oiartzungo Udalaren aurrekontua eta eskumena gainditzen dute azpiegitura handiekin loturiko hainbat jarduerak. Hori dela eta, Oiartzungo Udalaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren, Eusko Jaurlaritzaren, Estatuaren edo bestelako edozein organismo publikoren eskumenean koordinazioaren isla da Plana; parte hartzen duten administrazioen inbertsio gaitasunera bizkor egokitzeko besteko malgutasuna dute, gainera, legez planifika daitekeen arren, ekonomiari begira badaezpadakoa edota aurrez ikusezina baita esparrua.

Ondorengo taulan, sistema orokorrei, azpiegiturei edo zuzkidurei buruzko jarduera garrantzitsuenak nagusiak ageri dira, arauetan aurreikusitakoak, bai eta udal ekimen publikoekiko lotura ere.

## 1 KOADROA

### OIARTZUNGO HAPO, ALDIA (2014-2024).

**EREMUA** Tokiko eta Sistema Orokorreko inbertsioak (hornidurazoak eremu berdeak. Kontrata bidezko aurrekontua (€))

#### EGOITZA

ELIZALDE	Parke Zentrala (ELI 6A).....	302.500 €
	Biblioteka (ELI 6A).....	1.591.820 €
	Lurpeko aparkalekuak, merkatu tradizionala eta beste ekipamenduak (ELI 6A)	2.044.658 €
	Arizmendi: Handitzea eta berritzea (ELI 1F).....	360.415 €
	Ibargain Kultur Zentroa (ELI 2B) .....	2.150.420 €
	Hilerria Handitzea (ELI 2D) .....	510.111 €
	(Azpi)Guztira.....	6.959.924 €

ARRAGUA	Parkea (ARR 1B).....	259.182 €
	Hornidurazko S. O.(Lanbide Zentroa).....	(1)
	Kirol Hornidurazkoa (ARR 1B) .....	495.022 €
	Arragua parkea (ARR 1A) .....	123.666 €
	(Azpi) Guztira.....	877.870 €

UGALDETXXO	Ibai parkea (UGA 1A) .....	259.182 €
	Zentro Soziala eta Kulturala(UGA 1A) .....	719.950 €
	Lurpeko aparkalekuak (UGA 1A) .....	677.600 €
	(Azpi)guztira.....	1.656.732 €

ITURRIOTZ Ez dira aurreikusten

ALTZIBAR	Peatonalizazioa (ALT 2) .....	185.788 €
	(Azpi)guztira.....	185.788 €

ERGOIEN	Ekipamendua eta estalitako espazioa(ERG 1A).....	1.022.315 €
	(Azpi)guztira .....	1.022.315 €

KARRIKA Ez dira aurreikusten

GURUTZE Ez dira aurreikusten

(Azpi)guztira..... 10.702.629 €

(1) Eskumen aldetik Eusko Jaurlaritzari dagokio .



## 2 KOADROA

### OIARTZUNGO HAPO, ALDIA (2014-2024).

**EREMUA Tokiko eta Sistema Orokorreko inbertsioak (hornidurazkoak eremu berdeak. Kontrata bidezko aurrekontua (€))**

#### JARDUERA EKONOMIKOAK

Lanbarren Hornidurak (zehazteko eta programatzeko)... 1.273.812 €  
(Azpi) guztira..... 1.273.812 €

#### MUGIKORTASUNA

Konexioa eta Gurutze-Elizalde bidegorria Hobetzea..... 316.690 €  
Bidegorria Altzibar-Ugaldetxo artean bitan banatzea.....242.228 €  
Iturriozko zubia handiatzea eta bidegorriarekin lotunea ... 415.986 €  
Gurutze-Karrika landa bidea bultzatu eta hobetzea ..... 525.603 €  
Bidegorri Altzibar-Karrika..... 315.099 €  
Olantxeneko eremuan espaloia ..... 124.000 €  
(Azpi) guztira.....1.939.806 €

#### AZPIEGITURAK

Biltegia Elizaldera lekualdatzea ..... 492.815 €  
(Azpi) guztira.....492.815 €

#### AREA DEGRADATUAK LEHENGORATZEA

Ugaldetxo Berrurbanizazioa eta Birkualifikazioa espaziala..... 715.771 €  
Ugaldetxo Lur ez urbanizabarrian kiroletako S.O.ko lur erosketa ... 70.000 €  
Lintzirin Berrurbanizazioa eta Birkualifikazioa espaziala..... 581.216 €  
Altzibar-Karrika "Cadarsor" sistema orokorra birgaitzea ..... 260.032 €  
Sub (guztira)..... 1.627.019 €

#### BIDE SAREA (HRI ZEHARBIDEAK JARDUKETAK (2))

Elizalde	Mosa- Urkabebaita.....	208.178 (50%):	104.089
	Learre, elkargunea.....	130.667 (50%):	65.333
Altzibar	Eremu osagarria.....	160.222 :	80.111
Ergoien	Ekialde-Mendebalde.....	54.095 (50%) :	27.047
	(Azpi) guztira.....		276.580

(2) Gipuzkoako Foru Aldundiarekin partekatutako finantziazioa.

Aurreko inbertsio kapituluari aurreikuspen ezberdin batzuk erantsi behar zaizkio, eraikitako ondare publikoaren mantenua batetik (eta Plan Orokorran denboraldian progresiboki gauzatzen direnena ere) eta hiriztatuko ondare publikoaren mantenua bestetik, hau da, parkeak, espaloiak, bideak, plazak, azpiegiturak, hiri altzariak, eta abar, eta baita ere Planaren aurreikuspenak gauzatzen joaten diren heinean gehitzen diren jabari eta erabilera publikoko ondasunen mantenua.

Laburbilduz inbertsioen kapituluak honakoa suposatzen du:

Egoitza eremuan .....	10.702.629 €
AAEE eremua.....	1.273.812 €
Mugikortasun eremua .....	1.939.806 €
Azpiegituren eremua .....	492.815 €
Degradatuak dauden Eremuak Lehengoratzea.....	1.627.018 €
Bide Sarea .....	276.580 €
(Azpi) guztira.....	16.312.660 €
Eraikitako ondare publikoaren mantenua .....	956.111 €
Hiriztatutako ondare publikoaren mantenua .....	1.240.967 €
(Azpi) guztira .....	2.197.078 €
<b>GUZTIRA .....</b>	<b>18.509.738 €</b>

2014-2024 aldirako inbertsioen kapitulua, kontuan hartuta 2014 ekitaldia prozedura administratiboa amaitu eta BAOean argitaratzeko eta 2015 urtetik aurrera Plana gauzatzeko.

$$\text{Inbertsioetarako gaitasuna} \quad \frac{18.509.738 \text{ €}}{10 \text{ urte}} = 1.850.973,80 \text{ €/urteko}$$

## 6.6- UDAL ADMINISTRAZIOAREN GAITASUN EKONOMIKOAREN JUSTIFIKAZIOA. BIDERAGARRITASUN EKONOMIKOAREN AZTERKETA PROSPEKTIBOA

Errealista eta kontserbatzaileagoa izango den batezbesteko inbertsio bat (6.3. epigrafea) ezarrita, hau da, aurreko hamarkadaren azken hiru urteak (1.913.944 euro/urteko), eta inbertsioaren urteko programazio batekin inbertsioaren parametroak, gauzatutako obrarekiko, ondoren adierazten den eran ezar daitezke, eurotan:

### 2 KOADROA. INBERTSIOEN KOADRO KONPARATIBO ETA PROSPEKTIBOA, 2014-2024

	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023	2024
Udal Ogasunaren inbertsioetarako ahalmena	1.913.944	1.913.944	1.913.944	1.913.944	1.913.944	1.913.944	1.913.944	1.913.944	1.913.944	1.913.944
HAPOren Jarduketan ondorioz egin beharreko obrak	1.850.974	1.850.974	1.850.974	1.850.974	1.850.974	1.850.974	1.850.974	1.850.974	1.850.974	1.850.974

Hurrengo aldirako (2014-2024) aurreikusitako diru sarrera arrunten arabera, ez da defizitik egongo Udalak beharko dituen diru-sarrereri dagokienez. Dena dela, onar dezake Udalak gastu hori, Udal Administrazioak "Lurzoruaren inguruko Ondasun Publikoari" dagokionez jasoko dituen aktiboa aintzat hartuta, halaxe xedatu baitute Lurzoruaren eta Hirigintzaren 2/2006 Legearen 111. artikulua eta hurrengoek.

Edonola ere, Udalaren programazio ekonomikoa bideragarria dela erakusten da, Plangintzaren oinarrietako bat iraunkortasun ekonomikoa dela ezartzen duen Plan Orokor batentzat.

Oiartzun, 2015eko martxoak  
Erredakzio taldea:

Agustín Errea Luciano Pagaegi  
SABAI arkitektoak, S.L.P.

Juan Landa  
EKAIN, S.A.

Raoul Servert  
ARAUDI s.l.